

Language Attitudes and Practices among Basque Youngsters: A Qualitative Study of mudas during the EuskarAbentura expedition.

Hizkuntza jarrerak eta praktikak gazte euskaldunen artean: Hizkuntza-muden ikerketa kualitatiboa EuskarAbentura espedizioan.

Ingeles eta Frantses filologia ikasketetako gradu amaierako lana

Egilea: Izaro Arruti Aguirreurreta

izaro.arruti@e-campus.uab.cat

IKERKETAREN TESTUINGURUA

EuskarAbentura proiektua martxan jartzeko lehendabiziko motibazioa gazteen artean euskara sustatzea izan zen. Izan ere, azken urteetako euskararen erabilera neurketek honakoa erakutsi dute: Euskalduntze prozesuak ezagutza areagotzeko orduan arrakasta izan duen arren, euskarak orain erronka berriak ditu aurretik; halaber, erabilera handitzea. Izan ere, hizkuntza baten biziraupena bermatzeko, ezinbestekoa da, bai testuinguru formalean eta baita testuinguru informalean ere, bizirik egotea hizkuntza; bata edo bestea salbuetsi gabe.

Ikerketa linguistikoek erakusten duten bezala, gehienetan, hizkuntza baten desagertze prozesua honako hau da: batetik, hiztunak zahartzen dira, bestetik, belaunaldi berriei ez zaie hizkuntza transmititzen edota ez dute erabiltzen, eta amaitzeko, belaunaldi zaharrak desagertzean, hizkuntza ere beraiekin desagertzen da. Gazte euskaldunen errealitateari erreparatuz gero, azken urteetako erabilera datuek hau erakusten digute: gazteak testuinguru akademikotik irtetean euskara gutxiago erabiltzen dute, etxetik kanpo are gutxiago eta lagun artean oso gutxi. Horregatik, EuskarAbentura Elkartearen helburua, gure hizkuntzaren etorkizuna erabakiko duten belaunaldi gazteen hizkuntza ohituretan eragitea da (euskararen aldeko hizkuntza-muden¹ bidez), ezagutzan eta partekatzean oinarrituko den eta testuinguru informalean gauzatzen den esperientzia positibo eta ez-arautu baten bitartez.

EuskarAbentura 16-17 urteko gazte euskaldunei zuzenduta dago. Proiektu honek, gaztetxoek hizkuntza-praktiketan eragiteko asmoa du; nerabegarotik helduarora ematen diren praktika aldaketetan eta jarrera, egoera emozional zein hausnarketa berrietatik (identitate linguistikoaren ingurukoak besteak beste) abiatuta. Gazteek gogo onez parte hartzea da helburua, nahiz eta esfortzu fisikoa eskatzen duen. Abenturan parte hartu ahal izateko, gazteek lan idatzi bat aurkeztu beharko dute. Horrez gain, euskararekiko jarrera positiboa dutela bermatzeko, gutun bana eskatzen zaie. Gainera, espedizioa arauak beteko dituztela ziurtatzeko, nerabeek konpromiso orria sinatzen dute; euskaraz hitz egiteko konpromisoa esaterako.

IKERKETAREN HELBURUAK

Nire lanaren helburuak honako hauek dira: 1) EuskarAbenturako partaideen artean, euskaraz ikasi eta hizkuntza maila altua lortuta ere, eskolatik kanpo euskara erabiltzen ez duten gazteen

¹ Joan Pujolar-ek *mudarse* hitz katalanetik sortutako *mudes lingüístiques* terminoaren itzulpena. Honen arabera, hizkuntza-praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketak eta iraunkortasunak hizkuntza-mudantzak liriateke. Mudantzak denboraren araberrako konparazioetan agertzen dira, iraganean erabilitako hizkuntza (lehen-hizkuntza adibidez) eta gaur egun (ohiko-hizkuntza) erabiltzen denaren artean. Baina mudantzak ere ohiko erabileraren hizkuntza eta identitate-hizkuntzaren artean gertatzen dira. Beste egile batzuk hizkuntza-muda bezala ere itzuli dute eta nik honako hau erabiliko dut nire lanean.

hizkuntza-ohiturak deskribatzea; espedizioaren aurretik, bitartean eta ondoren. 2) Partaideak, EuskarAbenturari esker, euskal hizlari aktibo bihurtzea edo ez-bihurtzea zerk baldintzatzen duen identifikatzea. Halaber, espedizioan zehar gertatzen diren hizkuntza-mudak eta etorkizuneko mudantza-linguistiko zabalagoak eta iraunkorragoak errazten dituen aztertu dut. Amaitzeko, 3) EuskarAbenturak hilabetez euskaraz “bizitzeko” eskaintzen duen aukerak, partaideengan izan duen eragina neurtu dut; hizkuntza-gaitasunari, identitate linguistikoari, bidezko hiztun gisa duten auto-pertzepzioari, eta bereziki, euskararen erabilerari dagokionez. Batik bat, eremu eta giro ez-euskaldunetan bizi diren euskaldun berrien kasuak aztertu ditut, izan ere, komunitate euskaldunean gehiengoa dira eta hizkuntzaren etorkizunerako ezinbestekoak.

ERABILITAKO METODOLOGIA

EuskarAbentura Elkartek inkesta eta ebaluazio galdetegiak sortu zituen espedizioa hasi aurretik, espedizioan zehar eta amaieran partaideek bete zituzten. Besteak beste, euskara mailaren, euskaraz hitz egiteko konfiantzaren edota hizkuntzarekiko jarreraren inguruan formulatuak zeuden galdera itxiak erantzun behar zituzten 1etik 10era puntuatuz. Tresna horiek oso lagungarriak eta praktikoak dira partaideen profilak, iritziak eta esperientziak bateratu eta modu orokor eta laburrean aurkezteko. Dena den, galdetegi horien bitartez emaitza kuantitatiboak jasotzen dira, hots, narrazio pertsonaletatik urruntzen eta zenbaki anonimoak bihurtzen diren datuak. Gauzak honela, nire lanean metodologia kualitatiboa erabili dut, elkarrizketa erdi gidatuen bidez, jarraian EuskarAbenturak 2018ko espedizioaren amaieran osatu zuen memoriako ondorioekin alderatzeko eta hura osatzeko.. Izan ere, metodologia eta teknika mota honek fenomeno sozialen ulermen sakonagoa eskaintzen digute. Horregatik, egokiagoak dira hizkuntzarekiko jarrera eta identitate linguistikoa bezalako gai sentikorrek lantzeko.

IKERKETAREN EMAITZAK

Nire lanean egindako elkarrizketetatik ondorengo ondorioak atera ditut. Alde batetik, nire ikerketak, EuskarAbenturak espedizioaren amaieran egindako memorian aipatzen zituen konklusioak baieztatzen ditu:

- Parte-hartzaileek euskara gehiago hitz egiten dute espedizioa ondoren.
- Euskal hiztunen sarea zabalagoa dute.
- Euskal Herriaren eta euskal kulturaren inguruko ezagutza altuagoa dute.
- EuskarAbenturak transmititu nahi izan dituen baloreak landu eta bereganatu dituzte; genero berdintasuna, zaborraren kudeaketa, bizimodu osasuntsua, autonomia, bizikidetzeta edota turismo jasangarria besteak beste.

Bestalde, nire ikerketa lana baliagarria izan da EuskarAbenturaren memorian modu orokorrean aipatzen diren emaitzen inguruko xehetasun gehiago emateko. Baita, elkarteak beraien galdetegiekin atzeman ez dituen beste zenbait ondorio argitara eramateko ere.

- Euskararen ezagutza maila baxuagoa duten eta gune erdaldunagoetatik datozen EuskarAbenturako partaideek, zailtasunak dituztela onartzen dute, espedizioan zehar bereganatu dituzten ohitura linguistikoak (euskara egunerokotasunean erabiltzea) espedizioaren ondoren, beraien herrietan ingurukoekin, mantentzeko. Hala ere, bereziki baikorrak dira beraien testigantzak. Halaber, EuskarAbenturari esker landutako euskararekiko lotura emozionalak, zein hizkuntzaren egoeraren inguruko ezagutzak, euskararen aldeko hizkuntza-mudak gauzatzerantz animatu dituzte ekintza sinpleen bidez. Bereganatu dituzten ohitura linguistiko berriak, txikiak badira ere, esanguratsuak eta ahalduzkoak direla esan daiteke; txakurrari euskaraz egitea, Instagrameko profilean euskaraz idaztea edo mugikorreko hizkuntza euskaraz ipintzea esaterako.
- Partaide askorentzat, EuskarAbentura, hilabete oso batean euskaraz “bizitzeko” izan duten lehen aukera izan da, horrela, dagoeneko euskaldun aktiboak diren gazteekin espazio berbera partekatuz. Hots, EuskarAbentura konfiantzazko espazio linguistiko segurutzat dute. Hasierako aurreiritziak eta gorabeherak alde batera uzteko, espedizioa 11 partaidetako talde txikietan (estrategikoki, linguistikoki talde heterogeneoak sortzeko ideiarekin) banatzearekin batera, euskaraz aritzeko ohitura gutxiago zutenak errazago animatu dira euskaraz hitz egitera. Elkarrizketatutako partaideek diotenez, beraiek eta ingurukoek EuskarAbenturako partaide bezala identifikatze hutsak, zer esanik ez EuskarAbenturako kamiseta soinean eramateak, euskararen erabilerarekiko erantzukizuna eta harrotasuna transmititzen diete. Baita euskaldun hizlari legitimoago izatearen sententzia ere. Behin partaideen eta euskararen arteko lotura hori jendarteratzen denean (EuskarAbenturako kamiseta jantziak edo beraien parte hartzearen berri emanaz sare sozialetan adibidez) ingurukoak ez dira harrizten *jzioquitarrek*² lehen hitza euskaraz egitean. Era berean, ingurukoek ere errazago zuzenduko diete lehen hitza euskaraz. Espedizioaren ondoren, EuskarAbenturako euskaldun berriek erraztasun handiagoarekin ikusten dute beraien burua euskaldun hizlari legitimo modura. Gehiengoek euskara maila hobetu dute, euskalki berriak zein eskolatik kanpo euskara erabiltzeko erregistro informala ezagutu dituzte, euskara batuaren inguruko aurreiritziak apurtu dituzte, eta beraz, hizkuntzaren baitako aniztasun linguistikoaren aldeko ikuspegi zabalagoa bereganatu dute.

² EuskarAbenturako parte-hartzaile gazteei erreferentzia egiteko terminoa

- EuskarAbenturako gazte askok, espedizioari esker ezagutu dituzte euskara eta euskal kultura bultzatzeko antolatzen diren zenbait ekimen: Durangoko azoka, Euskaraldia, Mintzalagun programa, pastoralak... Hori posible izan da, batetik, dagoeneko ekimen hauek ezagutzen zituzten gazteekin egindako hartu-emanen bitartez. Bestalde, iniziatiba hauen atzean dauden antolatzaileekin edo partaideekin, EuskarAbenturak antolatutako solasaldien bitartez. Gainera, euskaraz hitz egiteko ohitura gutxiago zuten partaideen elkarrizketetan, nabarmena da espedizioak sortu dien gogoia eta erantzukizun sentimendua Euskaraldian parte hartzeko adibidez edota euskal musika taldeak entzuteko.
- Espedizioaren alderdi abenturazale eta nomadak EuskarAbenturako partaideen artean harreman sendoak sortu ditu. Halaber, harreman horiek espediziotik at denbora luzez iraun lezakeen gazte euskaldunen sarea posible egiten dute. Izan ere, harreman hauetan euskararen erabilera zerbait “normala” eta “naturala” bezala ulertzen da lehenespenez. Elkarrizketatuen testigantzetan askok aipatzen dute “betirako” lagunak egin dituztela EuskarAbenturan. Diotenez, espedizioan egunero 15-25 km oinez egiteak eta bizimodu sedentariotik aldentzeak harremanak egiteko modu “errealago” bat eskaini die. Gainera, espedizioaren ondoren EuskarAbenturak modu ofizialean, zein partaideek beraien artean “inprobisaturik” antolatutako topaketek (mendi txangoak, euskal selekzioaren partidua edota Durangoko azokara bisita) espedizioan sortutako harreman euskaldunak mantentzea laguntzen dietela aipatzen dute.
- EuskarAbenturako parte-hartzaileak gai dira espedizioan zehar, nahiz, espedizioaren ondoren beraien herrietan inguruko hizkuntza ohiturak zein ohitura sozialak definitu, mantendu eta aldatzeko. Elkarrizketatuen artean, bada kuadrillako edo ikastetxeko irakasleen hizkuntza ohituretan eragin duela uste duenik. Baita etxean birziklatzeko edo aisialdia lagunekin mendira joatea bezalako ohitura osasuntsuak bereganatu dituenik ere.
- Amaitzeko, EuskarAbentura espedizioiko partaideak, espedizioak berak landu eta defendatu dituen baloreekin bat datozen nazio mailako, zein maila internazionalerako mugimendu sozialekin bat egitera animatzen dira. Adibidez, EuskarAbenturan zaborraren kudeaketa egokia egiteko kontzientziazioak partaide batzuegan eragina izan du. Esaterako, hainbat elkarrizketatuk klima aldaketaren inguruko kontzientziazioa adierazi dute; *Fridayforfuture* mugimenduaren ekintza ezberdinetan parte hartu dute espedizioaren ondoren. Horrez gain,

beste partaide batzuk, hurrengo udaran genero berdintasunaren inguruko proiektuak lantzen dituen auzolandegian boluntariotza egitea erabaki dute.

IKERKETAREN ONDORIO OROKORRA

Gauzak honela, nire ikerketa-lanak, hizkuntza-mudak eremu eta giro sozial ezberdinen artean gertatzeaz gain (eskolan VS eskolatik kanpo, gaztetxeetan, edo jai batzordeko taldeetan adibidez) bizitzako etapa ezberdinen artean ematen direla ere defendatzen du (ikasketa berrien hasiera edo kasu honetan EuskarAbentura espedizioa gauzatzea), non subjektuak pribilegio zein erantzukizun berriak bereganatzen dituen. Izan ere euskarak, instrukziorako eta inposatutako hizkuntza izateari uzten dionean eta aisialdiko espedizio abenturazale batean parte hartzeko tresna bezala aurkezten denean, euskararen aldeko hizkuntza-mudak errazago gauzatzen dira. Beraz, EuskarAbentura “euskaldun ikasle gazteen” eta “euskaldun hizlari gazteen” arteko trantsizioa gauzatzen lagunduko duen diziplina anitzeko proiektu berritzaile eta eraginkorra da.